

## **MU-k proiektuak kudeatzen dituzten enpresetan emaitzak hobetzeko giltzarriak eskaintzen ditu**

2014/11/05

Proiektuen eta lehiakortasunaren kudeaketa eraginkor bat nola egin ezagutzeko interesa zutenentzako jardunaldi ireki eta doakoa izan zen.

Proiektuak kudeatzeko ohiko metodoen inguruan egiten diren hainbat ikerketek erakusten dute proiektuen %44 bakarrik bukatzen direla zehaztutako epean, hasieran zehaztutako epea %63an gainditzen dutela, %49ko jatorrizko kostu planifikatutik eta proiektuen %18 bertan behera geratzen direla amaitu aurretik.

Jardunaldiaren helburua proiektuak kudeatzen dituzten enpresen negozio emaitzak hobetzeko lehiakortasun giltzarri batzuk ezagutaraztea izan da.

Ekitaldian ikusi ahal izan zen negozio helburuak lortzeko enpresetan proiektuen kudeaketa on bat egiteak duen garrantzia eta proiektuak planifikatzeko faktore giltzarriak eta praktika onak ezagutzea.

Jardunaldi hau Proiektuen Kudeaketako Ikastaro Aurreratuaren barnean kokatzen da, zeina azaroaren 27tik otsailaren 12ra egingo den Mondragon Unibertsitateko Orona-Ideo campusean.

